

**II - ARABAKO LURRALDE  
HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA****VITORIA-GASTEIZKO UDALA****KIROL ETA OSASUN SAILA****Osasunaren Sustapenaren Arloa****Idazkari berria izendatzeko dekretua, Kontsumoko Arbitraje Sistema arautzen duen 231/2008 Errege Dekretuaren 7. artikulua araberak, aurreko titularrak lanpostuz aldatu delako****DEKRETUA**

Kontsumoko Institutu Nazionalaren, Eusko Jaurlaritzaren Merkataritza, Kontsumo eta Turismo Sailaren eta Vitoria-Gasteizko Udalaren ordezkariak 1994ko ekainaren 16an sinatutako hitzarmenaren bitartez eratu zen hiriko Kontsumoko Arbitraje Batzordea.

Kontsumoko Arbitraje Sistema arautzen duen 231/2008 Errege Dekretuaren 7. artikuluan dago finkatua Kontsumoko Arbitraje Batzordeen osaketa, honela:

“Kontsumoko Arbitraje Batzordeak honako hauek osatuko dituzte: presidentea eta idazkaria (Herri Administrazioen zerbitzuetako langileak izan beharko dira), eta organo horri atxikitako laguntzaileak.

Arbitraje Batzordeko presidentea eta idazkaria Batzordea eraginpean hartzen duen Administrazioak izendatuko ditu, eta izendapenak Kontsumoko Arbitraje Batzordeari dagokion lurralde-eremuari dagokion aldizkari ofizialean argitaratuko dira”.

Arantza Sáez de Cerain andrea izan da Kontsumoko Arbitraje Batzordeko idazkaria. Duela gutxi, pertsona hori lanpostuz aldatu da, udaleko beste zerbitzu batera. Hori dela eta, beste idazkari bat izendatu beharra dago Arbitraje Batzorderako, eta Unai López de Briñas jauna hautatu da.

Kontsumoko Arbitraje Sistema arautzen duen 231/2008 Errege Dekretua betetze aldera, gaur eta honen bitartez, eta Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 124. artikulua aitortzen dizkidan eskumenak baliatuz, hauxe

**EBATZI DUT**

Lehenak. Unai López de Briñas jauna Kontsumoko Arbitraje Batzordeko idazkari izendatzea.

Bigarrenak. Ebazpena ALHAOn argitara dadila agintzea.

Vitoria-Gasteizen, 2020ko urriaren 1ean

*Alkate-lehendakaria*  
**GORKA URTARAN AGIRRE**